

GIL 82 Arantzazuko arroilaren ur-begiak eta galeriak



Iritegi sistema hidrogeologikoko arroilak eta kareharri urgondarrak.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 58' 49,29" N

Long.: 2° 24' 29,60" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 548.259,30 m

Y: 4.758.805,15 m



Nola iritsi

Arantzazuko arroila izen bereko santutegiaren azpian bertan dago, Oñatiko udalerrian. Automobileraz edo oinez joan daiteke arroilara. Oñatitik Arantzazura doan GI-3591 errepidetik, Araozko bidegurutzea pasatu eta 1,5 km-ra, mendi-bide bat jaisten da Gesaltzarantz. Automobilari bidegurutzearen ondoan utzi daiteke. Bada beste aukera bat: santutegian uztea automobilari eta, handik, behearantz abiatzea eskailera piko batzuetan berrera arroilaren beheerako parteraino; eskailera, berehala, mendi-bide bihurtzen dira.



Arantzazu ibaiaren ur-jauzia.

GILaren deskribapen laburra

Arantzazuko ur-begiak eta hobiak santutegiaren eta Arrikruz leize turistikoaren artean daude. Gesaltza ibaiaren sistema hidrogeologikoagatik da interesgarria lekua, morfologia karstikoen adibide baliotsu ugari baititu (ur-begiak, leizeak, galeriak, etab.). Sistema karstiko batean urak duen jokabidearen erakusgarri bikaina da, hala erregistro fosilean nola gaur egun.

Arroila, oso-osorik, Aizkorri lurpeko ur-masari dagokio; zehazkiago, Iritegi azpiunitateari, zeinak izena ematen baitio arroilako ur-begi nagusiari. Zenbait deskarga-puntu ditu ur-begi nagusiak, maila freatikoak akuiferoan gora egin ahala aktibatzen direnak.

Aizkorri mendilerro osoan gertatzen den moduan, bi jatorri ditu akuiferoaren kargak: batetik, euriaren infiltrazioa —elur gisa, batzuetan—; bestetik, gainazaleko isurtze-ura, zeina iragazkortasun txikiko arroetan sortu, material karbonatatueta isuri eta hobietan sartzen baita. Deskarga ur-begien bidez gauzatzen da.

Gainazaleko karstifikazioak eta arro endorreikoak izateak lagundu egiten dute infiltrazioa handitzen. Hala gertatzen da Arantzazuko arroilan. Hala ere, erliebea malkartsua denez, gerta daiteke gainazaleko ur-isurtzearen osagaia handia izatea. Zona asegabetik sartzen da karga-ura mendigunearen barrura; bereziki, iragazkortasun bertikalaren bidez. Lurpeko ura zona asera iristean, mailaren gorabehera handiekin, urak ur-begietarantz zirkulatu du, eta iragazkortasunaren osagai horizontala nagusitzen da. Iritegik emari-gorabe-



Iritegiko ur-begia.

hera handiak ditu; batez beste, 380 L/s-ko emaria du, gutxi gorabehera (12 hm³/urte). Urak handi direnean, 2.000 L/s-tik gorako emaria izatera iritsi daiteke, eta 16 km²-ko arro isurlea du.

Akuiferoa karstiko motakoa da, adiera hertsian. Arroka-masa bat da, hausturaz eta karstifikazioz sortutako hodi-sare batek zeharkatua; abiadura handiz zirkulatzen du urak sare horretan barrena ur-begiraino.

Arantzazu (edo Gesaltza) ibaiak jokabide karstiko tipikoa du. Agertu eta desagertu egiten da bere ibilguko puntu batzuetan edo besteetan, baldintza hidrologikoen arabera. Agorraldian, ia ibilgu osoa lehorra egoten da Iritegiko ur-begiaren ekarpenera iritsi arte. Puntu horretatik aurrera, ibaiak badu emaria, baina gutxituz joaten da, ibilguko errekarrien artean erabat desagertu arte, Gesaltzako leize-hobi ikusgarrira iritsi baino lehen. Urak handi doazenean, berriz, emari eskerga du ibaiak; uhar indartsu gisa sartzen da hobian, eta modu ikusgarrian igoarazten du hobiko maila.

Urtearen parte handi batean, ibaia lehor egoten da tarteka; hala ere, lurpeko urak haren azpian zirkulatzen du, arroilaren zorupea Arrikruz leizearekin lotzen duten hodiaren barrena. Prezipitazio handiko aldietan, leizea aktibatzen egiten da, eta Jaturabe ur-begirantz deskargatzen du ura. Jaturaben bildutako uraren maila altua denean, ez da ikusten ur-begia, eta bildutako urak berak presa gisa jokatzen du: ez dio uzten urari puntu horretatik ateratzen, eta, horren ondorioz, igo egiten da lurpeko uraren maila Arrikruzeko arroaren barnean.

Jaturabe, Arrikruz eta Gesaltza Gesarribeko konplexu karstikoaren parte dira. Guztira, 13.893 m luze da konplexua, eta -149 m-ko desnibela du.



Konglomeratu-geruza bat Arantzazu ibaiaren terraza batean.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 65, GIL 81.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 65, GIL 68, GIL 81, GIL 83.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa		●		
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Arantzazuko santutegitik gertu dago.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoa 1/100.000 eskalan*.
- *Aizkorri mendilerroa*. <ftp://ftp.chebro.es/Hidrogeologia/FichasMasas/016%20Aizkorri.pdf>
- AMET (1989-93): "*Gesaltza-Arrikutz Multzo Karstikoa*". Karaitza, 1995-5: 19-33, topo., erreferentzialana).
- ALOÑA MENDI, (G.E. 1974). *Trabajos sobre el karst de SW de Guipúzcoa*. Oñate. Arg.: Udal Liburutegia, 101 or.
- ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA. (2001). "*El karst de Arantzazu (Gipuzkoa)*". Karaitza, 10. UEV/EEE San Sebastián-Donostia, 1437 or.